



prentsa-oharra

Bellota Herramientas eta KL katealegaia, Mutualia Sariak 2025

- **Mutualiak 125. urteurrena ospatu du, laneko arriskuen prebentzioan eta dibertsitate-proiektuetan nabarmentzen diren enpresak sarituz.**
- **Gainera, Smurfit Westrock eta Trelleborg enpresak ere saritu ditu, lan-istripuak murrizteko egiten duten lanagatik.**
- **Ekitaldi berean, Prebentzio Begiradak sariak eman zaizkie argazkirik onenari, AAK sortutako irudi onenari eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko bideo labur onenari.**

Gasteiz, 2025eko martxoaren 25a

125. urteurrenaren ospakizunarekin batera, Mutualiak “Laneko Arriskuen Prebentzioko Berrikuntzaren Saria” eta “Enpresako Aniztasunaren Saria” banatzeko gala egin du, eta Bellota Herramientas eta KL katealegaia enpresak saritu ditu.

Mutualiako presidenteorde Marta Barredok ireki du ekitaldia, eta Mutualiaren 125 urteko historia aipatu du. Izan ere, Mutualiak La Previsora du jatorria, 1900eko “Dato Legea-ren” ondoren sortu zen istripuen lehen mutuan. Jarraian, Lourdes Iscarrek, Osalaneko zuzendari nagusiak, hau azpimarratu du: “Enpresek ere kalera eraman behar dute prebentzioaren kultura, gizarte osora”.

Ekitaldia Mutuak Gasteizen duen ospitaleko ekitaldi-aretoan egin da, eta, jada aipatutako sariak banatzeaz gain, OBidean aitorpenak eman zaizkie Smurfit Westrock eta Trelleborg enpresei, laneko istripuen prebentzioan egiten duten etengabeko ahaleginagatik.

Jardunaldiko beste une nabarmenetako bat “Prebentzio Begiradak” sarien hogeita bigarren edizioako irabazlea izendatzea izan da. Lehiaketa hori arriskuen prebentzioari buruzko argazkiak biltzeko sortu zen, eta gerora kategoria berriak ere gehitu dira, hala



prentsa-oharra

nola adimen artifizialak sortutako irudirik onenaren saria eta segurtasunari eta lan-arriskuen prebentzioari buruzko bideo labur onenarena.

Ospakizunera bertaratutakoek “Risilencia, cómo superar problemas con humor” izeneko hitzaldi dibertigarria ikusi dute. Dani Delacámara bakarriketalariak eman du hitzaldia, eta lan-inguruneetan sortu ohi diren hainbat egoeraren parodia egin du.

Editoreentzako oharrak:

Mutualia Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen 2 zenbakiko mutuaren helburua da osasungintzaren alorreko zerbitzuak, prestazio ekonomikoak eta prebentzio-jarduerak kudeatzea, elkarteko kide diren enpresei eta babestutako pertsoneri zuzenduta. 650 langiletik gora ditu, eta Euskal Autonomia Erkidegoan jarduten du nagusiki, non 3 ospitale eta 15 laguntza-zentro baititu, eta 440.000 pertsonari baino gehiagori eskaintzen die babesa.

Informazio gehiago:

Juan Villar

Komunikazioko zuzendaria

.

669 891 210